

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroei zein behar edo nahi aseko diegun argi dago, alde batetik bigarren eskuko produktuekin lan egitea, baita ikastaroak egiteko zerbitzua eskainiko dugu. Lehenik eta behin, jendeak utzitako kamiseta edo alkandorak eraldatu,



hau da, boltsa, maindire, edredoi, txano, galtzan bihurtu eta honen bitartez, bezeroei premiazko beharrak asetzera izango da gure helburua. Izan ere, guztiek dugu janzteko beharra. Lehen aipatu bezala, ailtzairuak eraldatzeko edo konpontzeko aukera eskainiko dugu ere. Horregaitik, ailtzairu berri bat erosi aurretik, garesti aterako zaiguna, gure esku utziz gero merke eta zure gustukoa izango den ailtzairua konpontzea edo itxura hobetzea emateko aukera edo mahai zaharra orain apal bihurtu nahi badute aukera hori emango dugu. Produktu hauek eraldatu edo itxura berri bat emateko momentuan bi aukera edukiko dituzte. Gure esku uztea edo beraiek gurekin batera lan egitea ikastaroen bitartez edo guri uzten diguten materialarekin lan egitea.

Gure enpresa erdi mailako jendeari zuzenduta dago. Batetik, berrerabilitako produktuak, hau da, eskuz eginda daudenak, erosi nahi dituzten jendeari. Izan ere gaur egun bizi dugun arazoa klima aldaketagatik, kontzientziatuagoak gaude bertziklapenean eta gure lana horretan datza. Gure ikastaro hauek jaso nahi dituztenentzako ere zuzenduta egongo da. Hauen bitartez, ikasi egingo dute erabili nahi ez diren edo zaharkituak dauden gauzei bigarren aukera bat ematen eta beraien denbora librean, egunerokotasunean egiten ez diren gauzak egiteko aukera edukiko dute. Burua beste leku batean eduki eta burua argitzeko aukera emango dugu.

Gure bezeroek honako ezaugarri hauek izango lituzkete: ingurumenaz arduratzen den jendea eta, horrela, kutsadurarekin apurka-apurka amaitzen saiatzen dena; bestalde, jantzi edo ailtzairu bat bota beharrik gabe bigarren bizitza bat izan dezakeela uste duen jendea. Horrela, arropa erosteko aukerarik ez duen edo arropa edo objektuetan hainbeste diru gastatu beharrik ez dagoela uste duen jendeari gehiago laguntzen diogu.

